

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezerao gure proposamenari lotuta mantentzeko ekintzak:

1. Banakako kontsulta zerbitzua: Bezerao bakoitzarekin harreman estua sortuko dugu, beraien beharrak sakon aztertzeko eta behar duten material egokiena eskaintzeko. Kontsulta hau aurrez aurrekoa edo online izan daiteke.
2. Materialaren erabilerari buruzko formazioa: Materiala nola erabili erakusteko tailerrak eskainiko ditugu. Bezeraoari lagunduko diogu materiala modu seguru eta eraginkorrean erabiltzen ikasten.
3. Bezeraoen komunitatea sortzea: Bezeraoen komunitate bat sustatuko dugu, kirol inklusiboarekin zerikusia duten ekitaldietara edo jardueretara gonbidatuz. Komunitateak elkarren artean esperientziak partekatzeko eta gure zerbitzuak hobeto ezagutzeko aukera emango du.
4. Feedback aktiboa jasotzea: Aldizkako inkestak eta iritzi-bilketa prozesuak, gure zerbitzuak hobetzeko eta bezeraoen behar berrietara egokitzeko.

Bezerao gure negozio-ereduan integratzeko moduak:

1. Harpidetzak: Bezeraoak hilabeteko edo urteko kuota baten truke material egokitua erabiltzeko aukera izango du.
2. Bezeraoen elkarteak: Elkarrekin baten bidez bezeraoak gure enpresarekin lotura handiagoa izateko aukera izango du. Elkarteko kideek abantaila eskusiboak izango dituzte, adibidez material berrien probak.
3. Online plataforma bat sortzea: Bezeraoak bere beharretara hobekien egokitzen den materiala aurkitzeko eta erreserbak egiteko aukera izango dute online plataforma baten bidez. Gainera, plataformak aholkuak, tutorialak eta komunitate foro bat izango ditu, bezeraoak gure enpresarekin konektatuta mantentzeko.
4. Kolaborazioak eta bazkideztza estrategikoak: Eskolekin, klubekin eta osasun-erakundeekin lankidetzak sustatuko ditugu, bezerao potentzial gehiagorengana iristeko.